



**Arartekoaren ebazpena, maiatzaren 25koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari gomendatzen zaio pertsona bati etxebizitzarako prestazio osagarriari dagokionez jaso ez duen zenbateko bat kobratzeko daukan eskubidea onar diezaion, etetea bertan beherea utzi dezan eta modu okerrean jasotako prestazioak itzultzeko prozedura baliogabetu dezan.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekora jo zuen Arabako Foru Aldundiaren jardueraren ondorioz; aldundiak, azaroaren 25ean, 2010eko urtarrilaren 1ean aitortu zioten etxebizitzarako prestazio osagarriaren ordainketa bertan behera uztea erabaki baitzuen. Ebazpen berdinen bitartez jakinarazi zioten modu okerrean jasotako zenbatekoa 2.500 eurokoa zela; hortaz, zorra kitatu arte diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoan % 30eko deskontua egingo ziotela esan zioten. Modu berean, edozein zalantza izanez gero, Gasteizko Udaleko Informazio eta Gizarte Prestazioak Izapidetzeko bulegora joateko gomendatu zioten. Ebazpen hori 2010eko abenduaren 29an jakinarazi zioten eta Arabako Foru Aldundiko irteera data 2010eko abenduaren 21a da.

Prestazioa 2010eko urtarrilaren 1ean onartu zioten. Kexagileak adierazi du 2010eko ekainaren 7an lehenengo 6 hilabetei dagozkien ordainagiriari Gasteizko Udaleko Informazio eta Gizarte Prestazioak Izapidetzeko bulegoan aurkeztu zituela eta 2010eko abenduaren 3an hurrengo 6 hilabetei dagozkionak aurkeztu zituela.

2. Arartekoak Arabako Foru Aldundiari informazioa eskatu zion eta, aldez aurretik, etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidearen etetea ebazteko jarraitu beharreko prozeduraren eta modu okerrean jasotako zenbatekoak itzultzearen inguruko zenbait gogoeta helarazi zizkion.

Modu berean, Gasteizko Udalarari ere aurreko gertakariei buruzko informazioa eskatu zion. Izan ere, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak prestazioaren izapidetzean parte hartu zuen.





3. Arabako Foru Aldundiak erantzun zigun pertsona horrek etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen zuela etxebizitza alokatzeak eragiten zizkion gastuak ordaintzeko. Gasteizko Udalak, zegokion jarraipena eta berraztertzea egin ostean, egiaztatu zuen ez zituela jasotako laguntzari lotutako gastuak justifikatu, beraz, eteteko prozedura bati hasiera eman zion, onuradunak ez zituelako etxebizitzari edo ohiko bizitokiari buruzko gastuak egiaztatu.

Horrez gain, zera adierazi zuen *"recibida la notificación, rubricada con la forma del acuse de recibo (...) acude al Servicio Social correspondiente a su domicilio, donde hace entrega con fecha 3 de diciembre de 2010 de los recibos justificativos de los abonos del alquiler, que no habían sido presentado por su parte con anterioridad al procedimiento de suspensión, tal y como nos informa el Ayuntamiento de Vitoria quedo registrado en el Registro de actuación municipal establecido al efecto"*.

Hori guztia ikusita, jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu honako gogoeta hauek helaraztea:

### Gogoetak

1. Etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuak prestazio hori aldatzeko, eteteko edo deuseztatzeko prozedura xedatzen du.

2/2010 Dekretuko 31.2. artikulua hauxe ezartzen du *"Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria jasotzeko eskubidea aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura hasitakoan, ofiziozko prozedura bat bada, hasiera eman zaiola jakinaraziko zaio titularrari adieraziriko bizilekura igorrita, eta baita ere prozedurak oinarri dituen arrazoiak eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak – 33. artikuluan ezarritako epean berariazko ebazpenari ezak eragindakoa –, eta ebatzi eta jakinarazteko epea eta administrazioaren isiltasunaren ondorioak, eta horiek guztia interesdunek egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten."*

Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak egindako eteteko proposamena jaso eta gero, zuzenean prestazioaren ordainketa bertan behera uzteko ebazpena



eman zuen, titularrari prozeduraren hasieraren berri eman gabe, aurreko artikulua ondo ondo etarako.

Prozeduraren ebazpenean ez zen entzunaldi izapiderik burutu, beraz, onuradunak prestazioa jasotzeari utzi zion inolako alegaziorik aurkezteko aukera eduki barik.

2. Arabako Foru Aldundiak adierazi du etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko arrazoia haxe izan zela: eskatzaileak etxebizitzari edo ohiko bizitokiari buruzko gastuak behar bezala egiaztatzeko betebeharra eta/edo baldintza behin-behinean alde batera utzi zuela. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak (41. artikulua) eta 2/2010 Dekretuak honako hauek xedatu dituzte etetearen arrazoi gisa *"Ohiko etxebizitza edo bizitokiaren alokairu-gastuak behar bezala egiaztatu ezean"*.

Herri-administrazioek esandakoaren arabera, 2010eko abenduaren 3an ordainagiriak aurkeztu zituela idatziz jaso da (bigarren seihilabetekoa), **beraz, prestazioa jaso zuen hilabete guzietako alokairuaren gastuak justifikatzen duten ordainagiriak daude.**

Lehenengo hilabeteen alokairuko gastuak egiaztatu dituela jaso ez izanak, kasu honetan, ez du esan nahi alokairuaren gastuak justifikatzen dituen ordainagiririk ez dagoenik.

Pertsona horrek alokairuaren gastuaren ordainagiri justifikagarriak dauzka, hortaz, etxebizitzari lotutako gastuak behar bezala egiaztatu ditu eta ez du etetea eragin.

3. 2/2010 Dekretuaren 19. artikulua etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrari seihilabeteko bakoitzean etxebizitzari edo ohiko bizitokiari lotutako gastuen ordainagiriak aurkezteko betebeharra ezarri dio. Pertsona horrek ez dauka inolako egiaztagiririk lehenengo seihilabetekoan ordainagiriak aurkeztu zituela frogatzeko baina adierazi du ordainagiri horiek Informazio eta Gizarte Prestazioak Izapidetzeko bulegoan aurkeztu zituela 2010eko ekainaren 7an. Gasteizko Udalean eta foru aldundian ez dute jaso ordainagiri horiek aurkeztu zirenik, ez data horretan, ezta lehenengo 6 hilabeteen barruan ere.





Lehenengo 6 hilabeteetan ordainagiriak aurkeztu izanaren egiaztagiririk ez daukan arren, garrantzitsua da azpimarratzea prestazio horren kudeaketa eta hori izapidetzen duen bulegoa orain dela gutxi ezarri direla. Horrez gain, pertsona horrek ondoren aurkeztu dituen aurreko hilabeteetako ordainagiriak dauzka. Ez dauka zentzu handirik bere esku dituen ordainagiri batzuk aurkeztu nahi ez izateak, batez ere, jasotzen duen prestazioa oso beharrezkoa dela kontuan hartuta. Izan ere, prestazioaren helburua funtsezko behar bat asebetetzea da, hau da, bera bizi den etxebizitza ordaintzea.

Arabako Foru Aldundiak etxebizitzarako prestazio osagarria bertan behera utzi du pertsona horri entzunaldi izapidea eman gabe eta aplikazio araudian ezarritako eteteko arrazoiak bat ere betetzen ez den arren. Udaleko fitxategietan bigarren seihilabeteko alokairuko gastuen justifikazioa jaso izanak eginbehar bat bete ez dela erakusten du baina ez da eteteko arrazoi bat. Eteteko arrazoiak eta eginbeharrak ez betetzeak desberdintzea garrantzitsua da. Etetea soilik gauzatu daiteke pertsona horrek araudian ezarritako eteteko arrazoi bat betetzen duenean. Eginbeharrak ez betetzeak soilik izan ditzake ondorioak hala ezarri bada araudian.

Araudiak ez du ezarri lehenengo sei hilabeteetan alokairuaren gastuen ordainagiri justifikagarriak aurkezteko betebeharra eteteko arrazoi denik, beraz, etxebizitzarako prestazio osagarria ezin da eten arrazoi hori dela eta.

4. Arabako Foru Aldundiak, etetea burutzeko erabili zuen ebazpen berean, modu okerrean jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra jakinarazi zion. 2/2010 Dekretuaren 35. artikulua eta hurrengoek modu okerrean jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura xedatu dute. Bertan, xedatu da pertsonari horren hasieraren berri eman behar zaiola, bai eta horren oinarri diren arrazoiak eta ondorio ekonomiko posibleen berri ere. Modu berean, pertsona horrek egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango dituela xedatzen du. Kasu honetan ez da prozedura hori bete. Horren ordean, prestazioaren ordainketa zuzenean eten da eta jasotako zenbatekoa itzultzeko eskatu zaio, zorra kitatu arte diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoari % 30eko deskontua aplikatuko zaiola jakinaraziz; eta hala izan da.

Herri-administrazioak legearen eta zuzenbidearen menpe daude (EKren 103. artikulua). 2/2010 Dekretuak prestazioa jasotzeko eskubidea bertan behera uzteko bete behar den prozedura xedatzen du, bai eta modu okerrean jasotzeko





zenbatekoak itzuli ditzan eskatzeko prozedura ere. Prozedura horrek pertsonaren entzunaldi izapidea barne hartzen du. Arabako Foru Aldundiak ez du etxebizitzarako prestazio orokorra arautzen duen araudia bete. Izan ere, prestazioa eten du eta prestazioaren onuradun izateko araudian ezarritako baldintzak betetzen dituen pertsona bati zenbateko jakin bat eskatu dio.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **13/2011 GOMENDIOA, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari egindakoa**

Etxebizitzarako prestazio osagarriaren etetean zehar jaso ez duen zenbatekoa jasotzeko eskubidea onar diezaioten.

Etetea baliogabetu dezaten eta pertsona horri onartutako etxebizitzarako prestazio osagarriaren ordainketarako eskubidea mantendu dadila.

Modu okerrean jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura bertan behera geratu dadila eta diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa jasotzen duen zenbatekoari aplikatutako deskontuaren bidez konpentsatu duten zenbatekoa itzul diezaioten.

